

EUSKARAREN OFIZIALTASUNAREN ALDEKO MANIFESTUA

Apirilaren 9an, Korrikak berriz ere Erribera zeharkatuko du eta 25 urte pasa ondoren, manifestu hau sinatzen dugunok, bigarren mailako herritarrak izaten ez dugula jarraitu nahi esateko, adierazteko eta exijitzeko garaia heldu dela uste dugu.

Honek, beste nafarrek dituzten eskubideak izan behar ditugula esan nahi du, eta horregatik, Erribera zonalde ez euskalduntzat duen eta herritar guztiak maila berean jartzen ez dituen Vasuenceren legea desagertu behar da.

Euskara gure hizkuntza da, Nafarrak eta Erriberarrak garelako. Gure seme-alabek, euskara ikasteko, beste edozein nafarren seme-alabak dituen eskubideak izan behar dituzte, eta eskubide hauek erabiltzeko baldintzak ere beste nafarrek dituztenak izan behar dira.

Foru zein udal-administrazioetako oposaketetan lehiatzeko, beste edozein nafar herritarrek dituen baldintza eleanitz berak izan behar ditugu.

Gure seme-alabak ezin dira bizitza osorako bigarren mailako nafarrak izan, hortaz, neurriak jarri behar dira, Nafarroa osoan euskara ofiziala izan dadin.

Aldeko pausuak emateko garaia da, nafar guztion hizkuntzaren aldeko pausuak. Euskarari jartzen dizkioten oztopo guztiak kendu behar ditugu, gure hizkuntzak Nafarroa osoa naturaltasunez eta konplexurik gabe zeharka dezan.

Honengatik guztiarengatik, Vasuenceren legearen indargabetzea eta Nafarroako nafar guztion hizkuntzaren ofizialtasuna jasoko duen Euskararen lege berri bat eskatzen dugu.

Honetarako, manifestu hau sinatzen dugunok, **Apirilaren 9an goizeko 12:30ean Tuterako Sancho el Fuerte plazatik “Nafarrak garelako, ERRIBERAN EUSKARAZ” lelopean abiatuko den manifestazioan parte hartzera deitzen dugu.**